

+CAMBIO +SOCIAL

Aurrekontu sozial, parte-hartzaile eta burujabeen alde

2015eko martxoaren 14an, 55 eragile sozial eta sindikalek 'kolore martxa' izeneko mobilizazioa antolatu genuen aldaketa soziala eskatzeko, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren ekimenez, Nafarroan hainbat hamarkadaz geroztik ezarritako politika neoliberalak salatzen. Pausoak emateko beharra ikusi genuen, Programa Sozial baten bitartez, ardatz hauek oinarri: aberastasunaren banaketa; kalitatezko enpleguaren sorrera; bizitzaren jasangarritasuna eta ongizatea; askatasunaren eta kultur eskubideen defentsa; gizartearen parte hartzea eta erabakitze eskubidearen bermea.

Bestalde, Parlamentu Sozialak lan garrantzitsua egin du aurrekontuei, fiskalitateari eta zorrak beharrezkoa duen auditoriari dagokionez. Parlamentu horretan lehen aipatutako zenbait eragile sozial eta sindikal gaude. Modu transbertsealean, sentsibilitate desberdineko hainbat lagun ari dira lanean: jendartea aktibatu, politika publikoetan eragin ahal izateko.

2015eko maiatzeko aldaketa instituzionalaren ondotik, batzuek zein besteek aldarrikatu dugu aldaketa estruktural bati heldu behar zaiola Nafarroan garatutako politika publikoen esparruan. Hain zuzen ere, aurrekontuak dira politika publikoak gauzatzeko tresnarik nagusia. Hortaz, aurrekontuen eztabaida aldaketa sozialaren alde gaudenoi ere badagokigu.

Nafarroan gobernu aldaketa egon zenetik bideratzen diren bigarren aurrekontuak dira hauek. Bada, erakunde sozial eta sindikalek uste dugu ez datozela bat aldarrikatzen dugun aldaketa sozialarekin.

Formari dagokionez, aurreko urteetako partaidetza maila bera ahalbidetu dute; hots, hutsaren hurrengo. Erakunderen batek bere iritzia emateko aukera izan du Batzorde Ekonomiko eta Sozialean, zirriborroa jaso eta astebete eskasera, Legebiltzarrera bidaltzeko bezperan; izapide hutsa, beraz. Talde sozial gehienek, berriz, ez dute aukera hori ere izan.

Edukiari dagokionez, zenbait arlotan aurrerapausoak eman dituzten arren, aurrekontu hauek ez dute eredu aldaketa ahalbidetzen. Diru bilketa ez da nahikoa, ezta justua ere, enpresek eta kapital errentek beharko luketeena baino askoz gutxiago ordaintzen dutelako, Europako Batasunaren batez besteko presio fiskaletik urrun. Bestalde, ez dira beharrezkoak diren inbertsioak egiten sektore publikoa garatu, enplegua sortu eta behar sozialei erantzuteko.

Nafarroan aberastasuna badago herritarren beharrak bermatzeko, baina, hori horrela izateko, beharrezkotzat jotzen dugu aberastasuna banatzeko politika fiskal eta aurrekontuen kudeaketa egokiak gauzatzea. Hau guztia dela eta, ekitaldi bat egingo dugu abenduaren 16an, Iruñeko Labrit pilotalekuan. Ondoren, mobilizazio bat egingo dugu Legebiltzarreraino, **"+Cambio, +Social. Aurrekontu sozial, parte-hartzaile eta burujabeen alde"** leloarekin.

HAUEK DIRA GURE ALDARRIKAPENAK:

1.) Aldaketa gehiago aldarrikatzen dugu eta aldaketa sozialagoa izan dadila. **Aldaketa estruktural bat nahi dugu politika publikoetan**; aberastasunaren banaketa, kalitatezko enpleguaren sorrera, bizitzaren jasangarritasuna eta askatasunaren eta kultur eskubideen defentsa oinarri.

2.) **Sakoneko erreforma** fiskal bat eskatzen dugu, gehien dutenek gehiago ordain dezaten. Halako neurriak ezinbestekoak dira diru sarrerak handitzeko, beti ere zerbitzu publikoak, enplegua, babes soziala eta kultur eta hizkuntza eskubideak sustatze aldera.

3.) Jendarteak zor handi bat du emakumeekin, eurek gauzatzen baitute eguneroko bizitza sostengatzen duen zaintza lana; modu ikusezin eta prekarioan, gainera. **Genero ikuspegia duten aurrekontuak** oinarritzko tresna dira emakumeen behar espezifikoak erantzuteko, baita gehiengoarentzat bizitza on bat bermatzeko eta genero arteko botere harreman estrukturalak eraldatzeko ere.

4.) **Zorren auditoria** azken muturreraino eramateko konpromisoa berresten dugu. Obra erraldoiak, ezkutuko mugimenduak eta enpresa publikoen sare iluna dira zorren eragileak. Auditoria ikusten dugu zor ilegal hori ez ordaintzeko aurreko urrats gisa.

5.) **Partaidetza soziala** aldarrikatzen dugu politika publikoak eta aurrekontuak definitzeko orduan. Aurrekontu parte-hartzaileak garatzeko baliabideak ahalbidetu behar dira.

6.) **Nafarroan eredu sozial eta ekonomikoari buruzko erabakia hartzeko eskubidea** aldarrikatzen dugu. Arlo fiskal eta aurrekontuei dagokionez, erabateko gaitasun legegilea eskatzen dugu.

+CAMBIO +SOCIAL

Aurrekontu sozial, parte-hartzaile eta burujabeen alde

El 14 de marzo de 2015, a propuesta de la Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria, 55 organizaciones sociales y sindicales organizamos una “marcha de colores” para impulsar el cambio social frente a las políticas neoliberales implantadas durante décadas en Navarra. Planteábamos la necesidad de avanzar en base a un Programa Social sustentado en los siguientes ejes: reparto de la riqueza; creación de empleo de calidad; sostenibilidad de la vida y buen vivir; compromiso con las libertades y los derechos culturales; participación de la sociedad y derecho a decidir.

Por otro lado, el Parlamento Social, donde confluimos varias de las organizaciones sociales y sindicales mencionadas, ha venido realizando una labor ideológica importante en torno a los presupuestos, a la fiscalidad y a la necesaria auditoría de la deuda. De manera transversal, gente de diferentes sensibilidades trabaja con una misma idea: activar a la sociedad para incidir en las políticas públicas.

Tras el cambio institucional producido en mayo de 2015, hemos venido reclamando que se debe abordar un cambio estructural de las políticas públicas que se desarrollan en Navarra. Y precisamente los presupuestos son el principal instrumento para materializar las políticas públicas. Por lo tanto, el debate presupuestario nos concierne.

Se están tramitando los segundos presupuestos desde el cambio en el Gobierno de Navarra, y creemos que no están a la altura del cambio social que reclamamos.

Respecto a la forma, se ha posibilitado el mismo nivel de participación que en años anteriores, es decir, prácticamente nulo. alguna organización ha tenido la posibilidad de emitir una opinión en el Consejo Económico y Social (CES), apenas una semana después de recibir el borrador y la víspera de que se enviara al Parlamento; puro trámite, en definitiva. La mayoría de los organismos sociales, ni eso.

En cuanto al contenido, si bien se producen avances en algunos ámbitos, estos presupuestos no posibilitan un cambio de modelo. No se recauda lo suficiente, ni de manera justa, porque las empresas y las rentas del Capital pagan muy por debajo de lo que debieran, lejos de la presión fiscal media de la Unión Europea. Por otra parte, no se invierten los recursos necesarios para desarrollar el sector público, crear empleo o atender las necesidades sociales.

En Navarra existe riqueza para garantizar las necesidades de la población, pero, para ello, es necesaria una política fiscal y presupuestaria que reparta esa riqueza. En este sentido, hemos decidido organizar el 16 de diciembre un acto en el frontón Labrit y movilización posterior hasta el Parlamento, bajo el lema “+ Cambio + Social. Aurrekontu sozial, parte-hartzaile eta burujabeen alde”.

ESTAS SON NUESTRAS REIVINDICACIONES:

1.) Reivindicamos más cambio y que el cambio sea más social. Queremos **un cambio estructural en las políticas públicas**, basado en el reparto de la riqueza y el trabajo, la creación de empleo de calidad, la sostenibilidad de la vida y el compromiso con las libertades y los derechos culturales.

2.) Reclamamos **una reforma fiscal profunda** para que paguen más los que más tienen, para, de esa forma, incrementar los ingresos y poder invertir en los servicios públicos, el empleo, la protección social o la promoción de la cultura y los derechos lingüísticos.

3.) La sociedad tiene una deuda de cuidados con las mujeres, ya que son ellas las que realizan el trabajo de cuidados que sostiene la vida de manera invisible y precaria. Los **presupuestos con perspectiva de género** son una herramienta básica para responder a las necesidades específicas de las mujeres, garantizar una vida digna para la mayoría y transformar las relaciones de poder estructurales de género.

4.) Nos reafirmamos en la necesidad de ir hasta el final en la **auditoría de la deuda** contraída durante años a causa de las obras faraónicas, los peajes en la sombra y el opaco entramado de empresas públicas, auditoría que concebimos como paso previo al no pago de la deuda ilegal.

5.) Reclamamos la **participación social** en la definición de las políticas públicas y de los presupuestos. Se deben habilitar mecanismos para desarrollar presupuestos participativos.

6.) Reivindicamos el **derecho a tomar en Navarra las decisiones sobre el modelo social y económico**. Reclamamos plena capacidad legislativa en materia fiscal y presupuestaria.